



**Arartekoaren Ebazpena, 2009ko uztailaren 13koa**, Güeñesko Udalak "pub" bateko titularrari dagozkion datuak ezetsi izanari buruzkoa, lokalean lesioak jasan zituen pertsona batek eskatutakoak horiek.

### Aurrekariak

1. Güeñesko Udalak udalerriko "pub" bateko titularrari buruzko datuen eskaera ezetsi zuenez pertsona batek erakunde honen aurrean kexa aurkeztu zuen lokal horretan 2008ko martxoan jasandako lesioak direla-eta egindako erreklamazioa izapidetze aldera.

2008ko abenduaren 15ean Güeñesko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak horrela arrazoitzen du egindako datu eskaera ukatu izana:

*"CONSIDERANDO que la solicitud de información concerniente a personas físicas identificadas o identificables se considera dato de carácter personal de conformidad con la Ley de protección de Datos, y estos datos de carácter personal sólo podrán ser comunicado a un tercero para el cumplimiento de fines directamente relacionados con las funciones legítimas del cedente y cesionario con el consentimiento previo del interesado."*

Erreklamazioa jaso ondoren, Arartekoak udalari kexaren inguruko informazioa eskatu zion eta kontu horri buruzko lehenengo gogoeta helarazi genion. Azken batean, adierazi genuen eskaera ukatzeko alegatu zen interesdunaren aurretiazko baimenak hainbat salbuespen dituela abenduaren 13ko 15/1999 Datu Pertsonala Babesteko (DPBL) Lege Organikoaren arabera. Horrez gain, adierazi genuen kasu honetan azaroaren 10eko 4/1995 Legea aplikatu behar dela, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei (JIJL) buruzkoa.

Horregatik guztiagatik, ebazpen honetako gogoetetan berriro aipatuko ditugun argudio juridikoen arabera, udalaren laguntza eskatu genuen, eta hala bazegokion, egin genuen planteamenduari heltzeko prest egotea eskatu genuen.

2. Alkateak 2009ko otsailaren 11n gure eskaerako hainbat adierazpenei erantzun zien. Laburbilduz, honakoa adierazi zuen:





- Eskaeraren ukapenaren eta horren jakinarazpenaren berri eman zuen eta adierazi zuen ez zela inolako errekurtsorik jarri hartutako erabakiaren aurka, administrazio bidean ez baitzen tinkoa.
  - Bere ustez, egindako eskaeraren izapidetik ondorioztatzen zen udalaren jarduera ez zela luzatu eta hortaz, ez ziola interesdunari kalterik ekarri administrazio jarduera desegokiagatik. Hala izan balitz, Arartekoak esku hartu beharko zuen.
  - Udalaren ustez, interesdunak ez duenez errekurtsoren bidea erabili, oraindik horretarako aukera izanda, herritarrak ez zuen babesik gabeko egoerarik izan.
  - Bere ustez, erakunde honek egindako informazio eskaera modu formalean Arartekoak interesdunaren izenean jarritako berraztertze errekurtsotzat jo daiteke.
  - Bere ustez Arartekoaren esku-hartzea ez dago justifikatua azkar izapidetzen den espedientea denean, interesdunarentzako erabateko bermekin, botere gehiegikeriarik gabe, eta kexa gauzatu zen unean administrazio errekurtsoa ekar zezakeen akordioari dagokionez.
3. Alkateak 2009ko martxoaren 12an egindako idazkiko adierazpenak aztertu ondoren gure gogoeten berri eman genizuen, bai erakunde honen eginkizunei eta esku-hartzeari dagokienez, eta baita udalak gaiari buruz eta gure ustez erreklamatzailleak eskatutako informazioa jasotzeko duen eskubideari buruz iritzi zehatzik ez emateari dagokionez.
4. 2009ko maiatzaren 21ean alkateak idazki bat bidali zuen eta bertan adierazi zuen 2009ko apirilaren 20an Güeñesko Udalak Balmasedako Lehen Auzialdiko 1. zenbakiko Epaitegira jo zuela puba irekitzeko lizentzia erakusteko. Hori dela-eta interesdunaren eskaera asebate zen eta espedientea artxibatu zen.

Zehazki, jasotako agirien arabera, erreklamatzailleak (kexa egin zuen pertsonak) bultzatzea proposatu duen epaiketaren aurreko eginbide gisa, udalari epailearen aurrean agertzea agintzen zaio bere esku duen eta epaiketari aipatzen den irekitzeko lizentzia erakutsi ahal izateko, Prozedura Zibilaren Legeko 256.1.2. artikuluari jarraiki.

5. Aurrekari hauek ikusita, interesdunak eskatu duen informazioa aipatutako bidetik lortu duen arren, irekitzeko lizentzia prozedura zibilean agindutako aurretiazko eginbidearen ondorioz eman denez, gure ustez egokia da administrazio prozeduran informazioa ukatzeari buruzko ebazpen hau egitea. Izan ere, gure ustez Güeñesko Udalaren jarduera bidegabekoa da, honako gogoetei jarraiki:



## Gogoetak

- 1) Lehenik, aurretiko kontu gisa, Arartekoak Herri-Administrazioen jardueretik dituen funtzioak aipatuko ditugu, Güeñesko Udalak bere adierazpenetan azaldu dituen zalantzak direla eta.

Erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11. artikulua, Arartekoaren eskumen gisa, besteak beste, honako hauek ezartzen ditu:

a) Ikerketa hasia eta egitea, 9. artikulua (jardura eremuari buruzkoak) aipatzen dituen eta herritar bati edo herritarren talde bati eragiten dieten erakundeek egindako egintzak edo jarrerak argitzeko.

b) Gomendioak bideratzea edo legezko betebeharrak organo eskudunei, funtzionarioei edo beren nagusiei gogoraraztea, legezkoak ez diren edo bidegabeak diren egintzak zuzentzen saiatzeko edo administrazioaren zerbitzuak hobetzea lortzeko.

Beraz, Arartekoak eskumen ugari ditu ikertzeko, egokitzen jotzen dituen agiri guztiak lortzeko eta, egintza edo jarrera baten inguruabarrak sakonki baloratu ostean, eragindako administrazioari dagokion gomendia edo planteamendua helarazteko, besteak beste, legez kanpoko egintza zuzentzeko.

Arartekoaren erakundea administrazioaren kontrolera dago bideratuta herritarren eskubideen defentsan, horiek ongi administratu daitezken, eta legezotasunaren printzipioaren bermean. Jarduketa bitarteko informalean eta laburren bidez egiten da. Gure esku-hartzeak ezin du, beraz, araudi orokorrak administrazioaren aurrean, zuzenean, herritarrei, araubide juridikoko eta prozedura administratiboaren alorrean, ematen dizkien ezin justizia administrazio biderekin edo beste izapidetze batzuekin zerikusia izan.

Aurrekoa aipatuta eta gaiari sakonki heldu aurretik, udalak gure esku-hartzea zentzurik gabea dela adierazteko egin dituen alegazioak kontuan hartu behar ditugu. Espediente jakin baten izapidetzea ikuspegi formaletik eta ikuspegi materialek hartu behar da kontuan. Alde batetik, izapideak eta Legeak zehazten dituen epe formalek betetzea dago, udalaren ustez bete direnak horiek. Baina ikuspegi materialari dagokionez, 2008ko abenduaren 15ean Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiak legezotasunik ote duen aztertu behar da. Horren bidez ezetsi zen interesdunak pubeko titularraren datuak eskuratzeko egin zuen eskaera, jarraian aztertuko dugun akordioko eduki materiala hori.





- 2) Eskatutako informazioa ukatu zuen ebazpenaren edukiari dagokionez, eduki materialari heldu aurretik, udalari informazioa eskatzean adierazi genion moduan, adierazi nahi dugu ukatzeko ebazpenak ez duela aipatzen ukapenaren arrazoiari erreferentzia egiten dion legeko artikuluko zehatza. Horrez gain, ez du araua osoki aipatzen eta ezta aipatutako data ere, eta hori garrantzitsua da herritarrek jardun administratiboarekiko eskubidea egokia ote den baloratu ahal izateko.

Aipatzen ez den arren, ulertu dugu udalak ukapena Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DPBL) 11.1 artikuluan oinarritu duela. Honakoa ezartzen du:

*“Los datos de carácter personal objeto del tratamiento sólo podrán ser comunicados a un tercero para el cumplimiento de fines directamente relacionados con las funciones legítimas del cedente y del cesionario con el previo consentimiento del interesado.”*

Hala ere, interesdunak aurretiaz eman beharreko baimenak hainbat salbuespen ditu. DPBLko 11.2 artikulua dio aurreko atalean (11.1. artikuluan) eskatutako baimena ez dela beharrezkoa izango, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Datuak ematea lege batek baimentzen duenean.
- b. Publikoak eskuragarri dituen iturrietatik jasotako datuak direnean.

Ondorio horietarako, gure ustez, interesdunak egindako eskaera azaroaren 26ko Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen (HAAJAPEL) 37. artikulua arautzen dituen artxibategi eta erregistroetara sartzeko eskubidearen barruan jaso daiteke.

HAAJAPELeko 37. artikulua oinarri du herritarrek, administrazioko artxibategietan dauden eta espediente baten zati diren erregistro eta dokumentuetara sartzeko duten eskubidea (1 atala). Hala ere, pertsonen intimitatearen gaineko datuetara sarbidea pertsona horientzat baino ez da izango (2. atala). Aitzitik, aipatutako artikuluko 3. atalak zehaztasun gehiago ematen du:

*“El acceso a los documentos de carácter nominativo que sin incluir otros datos pertenecientes a la intimidad de las personas figuren en los procedimientos de aplicación del derecho, salvo los de carácter sancionador o disciplinario, y que, en consideración a su contenido, puedan hacerse valer para el ejercicio de los derechos de los ciudadanos, podrá ser ejercido, además de por sus titulares, por terceros que acrediten un interés legítimo y directo.”*



Hortaz, atal honek ezartzen du interes zilegia eta zuzena duen hirugarren batek (lesioak jasandako aisialdiko jardueren establezimenduko titulartasuna ezagutzea) informazio nominatiboa ezagutu dezakeela (titularra), intimitateari dagozkion bestelako datuak jaso gabe, betiere (adibidez: titullarraren egoitza pribatua) pubeko jarduna salatzeke eskubidea baliatu ahal izateko.

Laburbilduz, kexa egin zuen pertsonak eskatutako informazioa jasotzeko eskubidea zuen Lege batek espreski hala ezartzen duelako; horrela DPBLren 11.2 artikuluko a) atala betetzen da.

- 3) Gainera, gure aburuz, jardun mota hau arautzen duen sektoreko legea aztertuz gero, ondorio berberera heltzen gara. Arrazoen adierazpenak zehazten duenez, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen (JIJL) helburua da lokaletako segurtasun baldintzak bermatu eta erabiltzaileen eskubideak babesteko botere publikoek esku hartzea bideratzea. Horren ildotik, jardun mota horren gaineko esku-hartze bereziko erregulazio eta kontrola ditu.

Eremu horretan, JIJLko 11. artikulua aipatzen du establezimenduaren lizentzian gutxienez honakoak jasoko direla: lokalaren izena eta helbidea, **titulartasuna**, katalogoaren arabera baimendutako jarduerak, gehieneko edukiera, etab. Titularrek baimena ematen duen administrazioak bidalitako agiri bat jarri behar dute, ikus daitekeen lekuan, eta agirian lizentziari dagozkion datuak jasoko dira, eta baita legez hala ezartzen diren beste batzuk ere.

Pubeko jardunak bete behar dituen legezko baldintzak betearaztearen eskumena Güeñeseko Udalarena da. Udalak agiria eman behar du, eta, besteak beste, han jasoko da jardunaren titularra. Ondoren, agiri hori bistako tokian eta erabiltzaileentzako eskuragarri dagoela ziurtatu behar du, izan ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestuko ditu horrela.

Horregatik guztiagatik, uste dugu udalak ezin duela ukatu jendearen aurrean egon behar duen datu baterako sarbidea, izan ere, ez luke zentzurik izango datua ezin eman izateak, udalaren lana horren publizitatea bermatzea bada. Hortaz, ikuspuntu horretatik ere egoki da eskatutako informazioa ematea, DPBLren 11.2 artikuluko b) atalarekin bat.

Aurretik azaldu dugun bezala, gogoeta hauek direla-eta, egokitzat jo dugu ebazpen hau egitea, gerora egin daitezkeen eskaerei begira, fitxategietan eta erregistroetan eskuragarri dagoen informazioa eskuratzeko eskubidea herritarren jardueretarako hobetzeko helburuarekin.





- 4) Amaitzeko, informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez, egokitzen jo dugu 2005eko gomendio orokor batean egin genuen gogoetako alderdi batzuk aipatzea. Gomendio hori "Herritarrentzako informazioa eta parte hartzea tokiko eremuan" gaiari buruzkoa da.<sup>1</sup> Orduan, hauxe esan genuen:

*"Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute informazioa eskuratzeko. Azken batean, gero eta hobeto dakite zeintzuk diren beren eskubideak, eta horregatik, herri administrazioen eginkizunen gardentasun handiagoa eskatzen dute, bai berriazko prozedura batean interesdunak izanda zuzenean eragiten dieten erabakiei buruz, bai beren ustez eragiten dieten beste jarduerari buruz.*

*Gainera, pertsonak gero eta maizago eskatzen dute informazio hori argia, garrantzitsua eta eskuratzeko erraza izan dadin. Hori dela eta, administrazioek uste osoz lan egin behar dute informazioaren kudeaketa eraginkorragoaren alde. Kudeaketa horrek herri erakundeetan nagusitu den ohiko opakutasuna desagerrarazi behar du, erakunde horiek herritarrek beren eskutan dauden informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko mugatu dutela."*

Horrez gain, honakoa aipatu genuen:

*"Nolanahi ere, ....mota horretako eskaera bat jasotzen duen administrazioak hausnartu beharko luke eskaera horri nola erantzun modu positiboan, hau da, abiapuntua informazioa herritarren eskubidea dela eta guztien eskura dagoen benetako herri zerbitzua dela izan beharko litzateke.*

*Egiten diren eskaeren murrizketek neurri handiagan erantzuten diote arrazoi ezberdinengatik publikoak izan behar ez diren zenbait jarduerari buruzko informazioa lapurtzearen beldurrari, babestu behar diren eta arriskuan dauden beste interes batzuk egoteagatik kezkari baino. Hona hemen aipatutako arrazoi horietako batzuk: ekintzen azalpenik eman behar ez izatea, kritikarik ez jasotzea, legez kontrako jardueren berri ez ematea, etab., hau da, administrazio jardueraren gardentasunik eza."*

Hori horrela, kasuan kasuko erakundeen informazio politikaren inguruan sakon hausnartzea gomendatu genuen eta informazio zerbitzua oso-osorik arautzea proposatu genuen -udal jarduerari ekarriko duten printzipioak eta baloreak eta informazio eskubidea bermatuko duten antolamendu jarraibideak gehituz-, administrazio gardenagoaren eta eraginkorragoaren testuinguruan herritarrei ematen zaien zerbitzuaren benetako bokazioarekin.

<sup>1</sup> [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) (ebazpenak eta gomendioak/gomendio orokorrak 2005)



Laburbilduz, herri-administrazio orok herritarren informaziorako eskubidearen baliatzeari buruzko eskaera bati erantzuna eman behar dionean, honako premisa hartu behar du aintzat: nola bidera dezakeen eskaera modu positiboan. Horrela, udal jarduera herritarrari ematen zaion zerbitzuarekin bat etorriko da, informazioa ematerakoan eraginda egon daitezkeen beste hirugarrenen eskubideak kontuan hartu behar izatearen kaltetan izan gabe.

Kexagilearen erreklamazioa ikusita eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan harturik, honakoa jakinarazten dizugu:

### Ondorioak

Güeñesko Udalak kontuan har ditzala azaldutako argudioak eta herritarrek udaleko fitxategi eta erregistroetan dagoen informazioa eskuratzeko duten eskubidea betetzerakoan aipatutakook aintzat har ditzala.

